

Auzolanaren etekinak zenbakitan azaldu ditu Ostromek

Ekonomia ataleko Nobel saria irabazi duen lehenbiziko emakumea da Elinor Ostrom. Baina, gainera, Estokolmoko epai-mahaiak azken hamarkadotako tiraina neoliberalaren kontra doan ekonomialaria saritu du. Auzolaneko jabetza eta jarduna emaitzetan ere interesgarria dela erakutsi duena.

EZ DA HEDABIDETZARRETAKO IZAR, izaz saritutako Paul Krugman-en oso alderantziz. 2009ko Nobelaren 969.000 euroak, endemas, Oliver E. Williamson-ekin erdibanatuko ditu, baten ikerketek ez duten arren zerikusirik bestelariekin. Elinor Ostromek 76 urterekin lortu du komunikabide minoritario batzuek auzolanaz eta herri jabetzaz mintzatzea; ezin zitzaion erretreta sari atsegingarriagorik egokitu.

Sin Permiso hilabetekari ezkertiarak webgunean oparitu dizkigu Ostrom hobeto ezagutzen laguntzen duten artikuluak, batzuk ingelesetik gaztelaniaratu. Mario Bunge filosofo argentinarrek *Elinor Ostrom: un Nobel bien ganado* idatzi du. Aldizkariaren editore Antoni Domenech-ek *Unas palabras sobre el Premio Nobel de Economía 2009 a Elinor Ostrom*. Pete Linebaugh historia irakasle iparramerikarrari *Counterpunch* guneko artikulu mamitsu bat itzuli diote, herri lurak, Ostrom eta Tom Paine XVIII.eko pentsalari utopiazalea lotzen dituena. Propinatat, Adam Smith-ek Nobel sariaren webgunerako Ostromi egindako elkarrizketa itzuli eta argitaratu dute.

Ostromek urte luzez herri ondasunak auzolanaz kudeatzea ikertu du, politika zientziak eta ekonomiak tupust egiten duten eremu erakar-

garrian. Lanerako eredu matematikoak erabili ditu, jokoaren teoriak ematen dituenak sarritan.

Aspaldi honetan ekonomialari akademiko gehienek jabetza pribatuaren laudorioa kantatu dute. Azalaren ifrentzuan, sozialismo errealean bizi zirenen —eta oraino aleka dirauten— herrialdeen hautua estatuaren jabetza izan da. Auzolaneko jabetza edo kudeaketarentzako lekurik apenas, batean bezala bestean.

1968an *Science* aldizkariak plazaratu zuen Garrett Hardin-en *The tragedy of the commons* (Herri-lurren hondamendia) eta ekonomialari buruetan iltzatu zuen Britainia Handiko herri-lurrak, komunak, efikaziarik ezak galdu zituela XVIII.ean. Garai hartako moda ere bazen: gurean, gerra karlisten pizteak izan zuen zerikusirik nekazari mendien pribatizazioak ekarri ziren bizi ezinarenekin. Orogen buru, Hardinen ideia mito fundazional bihurtu zen XX. mende akaberako moda berriaren tzako: oro pribatizatu.

Elinor Ostromek 1990an *Governing the commons: The evolution of institutions of collective action* atera zuen. Bertan jipoiu zituen Hardinen eta neoliberalen aurreiritziak. Ekonomia eta psikologia sozialean oinarritutako ikerketekin azaldu zuen historian zehar aintz izan direla herriarrek autoeratu eraginkorta-

*Proceedings of the National Academy*ren gunetik hartu dugu Elinor Ostromen argazki hau. Los Angelesen sortutako Elinor zientzia politikoetan irakaslea den Vincent Ostromekin bizi da ezkontuta. Biak ari dira AEBetako unibertsitateetan. 1973an Indianako unibertsitatearen barruan abian jarri zuten tailer bat analisi politiko eta ekonomikoaz oso famatua egin dena: *Workshop in political theory and policy analysis*. Beranduago, Arizonakoan *Center for the study of institutional diversity* fundatu zuten; Ostromek beti azpimarratzen du giza taldeen aniztasuna kontutan hartu beharra. Nobel saria eman diotenean, haren esaldi hau ipini dute webgunearen lehen orrian: "Idatzi gabeko edozein legerekin daukagun arazoa zera da: ez dakigula nora jo hura ezabatzeke".

sunez maneiatu dituzten ondasunak, izan lurak, basoak, urak edo arrainak. Reinhard Selten matematikariak jokoaren teorian egindako berrikuntzez lagundurik egin zuen lan Ostromek, eta liburuaren maila zientifikoa asko famatu zuten.

Elkarlanaren ekuazioak

Elinor Ostrom ez da mintzo herri-lurrez, inork pentsa ez dezan anti-goaleko kontuez ari dela. "Jabetza amankomunezko baliabideez" ari da. Gaur egun hartu beharreko erabaki politiko eta ekonomikoez interesatzen da, historiaren baino gehiago.

"Elinor Ostromek —idatzi du Nobel komiteak— auzitan ezarri du jabetza komunak eraginkortasunik ez duela dioten iritzi konbentzionala, zeinak pentsarazten duen aginte zentralizatu batek kudeatu behar duela edo bestela pribatizatu. Oinarrituz erabiltzaileek berek arrantza, larreez, oihanez, aintzirez eta lurpeko urez egindako erabilpenean, Ostromek erakutsi du gehienetan emaitza hobekien lortzen dituztela teoria estandarren arabera egindako aurreikuspenetan espero baino. Egin dituen ikerketek azaldu dute erabiltzaileek baliabideok kudeatzerakoan erabakiak hartzeko bezala gatazkak konpontzeko mekanika sofistikuak darabiltzatela, eta emaitza onak eskuratzen dituztela".



Maiz adierazi du Ostromek jabe-
go komuneko auzolanak ikasketa
eskatzen duela, ez duela balio auto-
organizatzeko ohiturarik ez duen
talde bati bere arazoen kudeaketa
esketan bat-batean uztea, baliabi-
deak eta informazioa behar dituela,
egokitzeko prozesua burutzeaz
gain. Auzolanaren emaitzak beti
onak ez direla ere aitortzen du.

Ikerketa zehatzez erakutsi dute
Ostrom eta bere taldeak ondasun
asko hobeto kudeatzen dituztela
erabiltzaileek beren gisa antolatuta
estatuak modu zentralizatuan agin-
duta baino. Zer esanik ez akziodu-
nen interesa baino zaintzen ez
duten korporazio pribatuek baino.

Agintariak buruan baldin badute
eskualde bateko herritarrei ondasun

baten kontrola uztea, nola jokatu
behar dute? Ingeleseko Wikipedi-
an dago Ostromek arrakastatsua
izatekotan auzolanarentzako pro-
posatutako baldintza saila. Hasteko,
taldeak garbi ezagutu ditzala mugak,
jabegoarenak eta kudeaketa ere-
muarenak. Bigarrenik, maneiatu
behar duen jabegoa lekuan bertako
baldintzetara egokiturik egon dadi-
la. Gero, partaide gehienek hartu
behar dute parte erabakietan.

Proiektuaren liderrek kideen
artekoak izan behar dute, edo beti
ere kideen kontrolpean egon. Tal-
dearen arauak hausten dituztenez-
zako zigorrak mailakatuak behar
dute izan. Gatazkak konpontzeko
tresnak merke eta errazak dira. Baz-
kideen erabaki ahalmena ontzat

hartu behar dute goragoko agintari
politikoek. Azkenik, partaidetza
edo jabegoa oso zabala baldin bada,
maila eta enpresa txikiagoetan des-
zentralizaturik kudeatu behar da.

Nobel sarietako gunearen komu-
nikazio arduradun Adam Smithek –
izen hori edukitzea ere!– elkarrizke-
ta egin dionean, ikertu izan dituen
ereduetako bat aipatu dio Ostro-
mek: AEBetako Maine-ko itsas
hegian abakando edo mixerak
harrapatetik bizi diren arrantzalee-
na. “1920ko hamarkadan arrantzal-
leek arrantza guztia suntsitu zuten
kasik. Orduan elkartu eta arau buru-
tsuak jarri zituzten, Maineko aba-
kando harrapaketa munduko arra-
kastatsuen bihurtu arte”. Orain
arazoa kanpotik datorkie, ingurue-
tako itsasoa hondatu denez, edo-
zein gaixotasunek kalte handia eka-
rriko liekeelako, baina egia da luzaz
izan direla oso efikazak.


Nepalen laborariek berek kudea-
tutako ureztatze sistemak ikertu
ditu: “Munduko Bankuaren eta aba-
rren laguntzarekin antolatutakoak
baino merkeago eta eraginkorrago-
ak dira”. Valentziako baratzeen
ureztatzea mila urte baino gehiagoz
osteguneroko bileran kontrolatzen
duen Tribunal de les Aigües de
València ere aipatu du eredutzat.

Gizakia berekoia dela eta auzola-
nak deus balio ez duela dioten topi-
koak zientziaz eta matematikaz
gezurtatzen saiatu da Ostrom.
“Ahalmen handiak dauzkagu giza-
kiok, baina alderantzizkoa sartu
digute buruan: gainerakoek ez
dauzkagun ahalmen genetikoak
dauzkatela jefeez”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

